



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2009-12-19**

VIIURTEA 1.886 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

«Finantziazio duina» eskatu diote Aldundiari ezker abertzaleko udalek

AGERRALDIA Eskualdeko zenbait alkatek udal finantziazio sistema salatu dute Foru Aldundiaren atarian

BANAKETA Zergen bidez jasotzen den dirua erakundeei nola banatzen zaien «lotsagarria» dela diote 4



Ikuskizun polita eskaini zuten Isidro Larrañaga musika eskolakoek. E. EZEIZA

Gabonetako kontzertua Isidro Larrañaga eskolako ikasleen eskutik

TOLOSA Gaztetxoan senitarteko eta lagun ugari bildu zen Leidor antzokiko emanaldian 2

Banatu dituzte Hernandorena lehiaketako sariak

ZIZURKIL Atxulondo Kultur Etxean izan zen sari banaketa ekitaldia; guztira hamar izan ziren saridunak, bost maila desberdinetan 4

**Mahai-tenis
partidekin
amaituko dute
gaur, Ibarako
Kirol Astea 6**

**Tolosako
Orfeoien
kontzertua
izango da
hilaren 23an 3**

Kimetz

Neska eta Mutil arropa

Kale Nagusia, 13 • Tel.: 943 249 496
TOLOSA

Abenduak 26, 18:00etan
BELODROMO DONOSTIA

Freestyle World Stars

SARRERAK
Guztira 943 00 13 90
www.kimetz.com

DENDAK
GIDUZKOA:
Kutxi (Hernani), Leandro (Arpenta),
Zurimato (Leizola), Automato (Donostia),
Aizkari (Andoain), Sal Factory (Iruia),
Zacari (Zamarraga)

www.donostiafreestyle.com



Mikel Azpillagaren lanak ikusgai gaurtik

KULTURA • Atzo arratsaldean inauguratu zuten Mikel Azpillagaren pintura erakusketa. Donostiarraren lanak ikusgai egongo dira Aranburu jauregian urtarrilaren 16ra arte. Bisita ordu-egia ondorengo izango da: asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era. Erretratuak nagusi diren arren, egurra euskarri gisa erabiltzeko aukera eman dio margolariari tresna ezberdinak erabili eta pintura beste era batzuetara lantzeko. I. TERRADILLOS



Gabonetako doinuak hurbiltzen hasi dira

KULTURA • Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleek ohiko Gabonetako kontzertua eskaini zuten atzo iluntzean. Leidor antzokian izan zen emanaldia, eta gaztetxoek guraso, familia eta lagun ugari hurbildu ziren haurrek hilabete hauetan zer ikasi zuten ikusi ahal izateko. Akordeoi, trikitixa eta gitarrak astinduz Eguberrietako doinuak entzun ahal izan ziren, beste- ren artean, Leidor antzokian. E. EZEIZA

Bello-Porturen obrak biltzen dituen bigarren lana entzungai, bihar

Kultura » Kea ahots taldekoen eskutik, Enrike Azurzak zuzenduta, emanaldia izango da Topic-eko areto nagusian.

ERREDAKZIOA

Javier Bello-Porturen lan osoaren bigarren argitalpena aurkeztuko dute bihar Kea ahots taldekoek. Emanaldia 12:30ean izango da, Topic-en. Sarrerak zazpi eurotan erosi daitezke egoitzan bertan, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.

Jabier Bello-Portu tolosar musikagilea, korurako konposaketa erreferente handienetako bat da. Kea ahots taldeak zuzenean eta Enrike Azurzaren zuzendaritzapean Bello-Portu maisuak idatzi-



Hodeietzekoekin batera, Kea ahots taldekoek parte hartu zuten Bello-Porturi 2004an egindako omenaldian. J. SAIZAR

Disko honetan ere, Kea ahots taldeak abestu ditu kantuak. Bi diskoek, Bello Portu korurako idatzitako 40 abesti inguru biltzen dituzte. Bertan aurkitu daitezkeen abestietako batzuk argitaratu gabe zeuden oraindik. Horregatik, partiturak ere gehitzea erabaki dute. Ahots berdineko taldeentzat egindako abestiak, latinezko polifonia eta abesti herrikoiak aurkitu daitezke, besteak beste.

David Azurzak diskoaren aurkezpenean azaldu zuenez, «Bello Porturen lan gehiena nahiko ezezaguna da. Doinuak herrikoiak izan arren, moldaketa hauek ez dira horren ezezagunak. Abestiak, koru batzuekin lantzen zituen, baina oro har, ez ziren gehiegi zabaltzen». 2007ko martxoan sortu zen Javier Bello-Portu Kultur egitasmoa, hau da, musikaria hil eta hiru urtera. Elkartearen helburuetako bat da «maisuren lana eta figura ezagutzera ematea». Honenbestez, konposatzailearen korurako errepertorioaz gain, beste lan batzuk argitaratu jarraituko dute.

Musika eta literatura izan ziren Bello-Porturen artearen ardatzak. Musikan, jotzaile, konpositore eta musikologo izan zen. Erromantizismoko Literatura Unibertsala oso ongi ezagutzen zuen, baita 98ko belaunaldikoena ere. Non ikerketa garrantzitsuak egin zituen, Azorin, Baroja, Unamuno eta beste hainbatenganduz. Jotzaile gisa, abesbatzetako zuzendari izan zen, baina lan gehiago egin zuen orkestrerkin.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakia: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta


Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

7 4 3
6 2 7
4 2 7

tako lanen azken CDa jendaurrean aurkeztuko dute.

Jabier Bello-Portu kultur egitasmoak artista tolosarraren obra biltzen duen bigarren diskoakaleratu zuen urri amaieran. Lehendabizikoa joan den urteko apirilean argi-

taratu zuten, eta honekin, orduan hasitako lana osatu dute. Alejandro Zabala piano jotzailea arduratu da lan hau egiteaz. Bihar, Topic-en bertan ere erosi ahal izango da diskoa, hala ere, musika dendetan ere eskuratu daiteke.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Plaza Etxeberri
LA TETREA

Plaza Etxeberri 10, 48901 Leizor (Bizkaia)
Tel. 945 41 11 11

K Kirol jarduera

Gaur, larunbata

Areto futbol

- Uzturpe pilotalekuan, Ereite elkartek antolatutako Adiskidetasunaren Txapelketaren baitan, 10:30ean 3. eta 4. postuen partidak jokatuko dituzte, eta 12:00etan finala.
- Usabalgo goiko kantuan, Gipuzkoako Ligako 1. maila, 16:00etan: Tolargi-Anoeta.
- Usabalgo goiko kantuan, maila nazionalako partida, 18:00etan: Laskorain-Transportes Lakuntza.

Eskubaloia

- Usabalgo beheko kantuan, 11:30ean, infantilak: Tolosa A-Le gazpi.
- Usabalgo beheko kantuan, 12:45ean, infantilak: Tolosa B-Le gazpi.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, kadeteen 1. mailako partida: Tolosa CF-Euskalduna.
- Usabalgo futbol zelaian, 11:30ean, infantil txikiak: Tolosa CF-Lagun Onak.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean, infantil mutilak: Ego Take-Askatuak. Eki Take-Zarautz.
- Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, junior mutilak: Take-Inte.

Bihar, igandea

Eskubaloia

- Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean, junior mailako partida: Tolosa-Hondarribia.
- Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, kadete mailako partida: Tolosa-Karibe Zaharra.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, infantil mailako partida: Eskolarteko futbol partidak.

Oharra. Gaur eta bihar, goizez eta arratsaldez Euskal Herriko klubean Arteko Igeriketa Txapelketa jokatu behar zen Usabalgo igerilekuan, baina datorren asteburura atzeratu dute eguraldia dela eta. Igerilekuak itxita egon behar zuen asteburuan txapelketarengatik, baina azkenean egingo ez denez, irekita egingo dela adierazi dute.



Haidarri eta Saharari elkartasuna

ELKARTASUNA • Tolosaldea Sahararekin elkarrekin deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo Plaza Zaharrean Aminatou Haidarri eta sahararrei elkartasuna adierazteko. Hain zuzen ere, Haidar giza eskubideen aldeko ekintzaile sahararra atzo goizaldean iritsi zen Aaiuneko (Mendebaldeko Sahara) bere etxera, 32 egun gose greban egon ondoren. Etxera abiatu baino lehen, bere kasua «sahararren, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbidearen garaipen» dela adierazi zuen sahararrak. I.T.

Orfeoiaren Eguberrietako Kontzertua, hilaren 23an

Musika » Händel-en 'Messiah'-ren zatiak eskainiko dituzte Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean.

ERREDAKZIOA

Eguberriak gainean ditugu, eta horrekin batera, urteroko ohiko hitzordueta bat ere bai, hau da, Tolosako Orfeoiaren Eguberrietako Kontzertua. Tolosako Leidor aretoan izango da, datorren asteazkenean, hilaren 23an, 20:30etik aurrera.

Emanaldi honetan, George Friedrich Händel-en *Messiah* obraren zatiak interpretatuko dituzte. Ignacio Ruiz de Alegriaren musika zuzendaritzapean, Iruñeko Concerto orkestrarekin batera jardungo dute. Bertan parte hartuko dute Amaya Arberas sopranoak, Marife Nogales kontraltoak, Jon Plazaola tenoreak eta Jesus Garcia Arejula baxuak.

Bazkideentzat doan

Urteroko ekitaldi honen abantailaketa bat da doan izango dela bazkide partikularrentzat eta enprezentzat; «Orfeoia ematen dioten



Tolosako Orfeoia eta Iruñeko Concerto Orkestra ariko dira. I.T.

» DATUAK

- **Emanaldia.** Tolosako Orfeoiaren Eguberrietako Kontzertua.
- **Noiz eta non.** Leidor aretoan, hilaren 23an, 20:30ean hasita.
- **Sarrerak.** Leidor aretoko leihatilan, eta www.kutxa.net edo www.generaltickets.com helbideetan. Sarreraren prezioa 12 eurokoa da. Bazkideentzat doan.

diru laguntzarengatik, eskertu amoz gonbidatzen ditugu, eta sarrera bana jaso dezakete bazkideek Leidorreko leihatilan, Orfeoia bidalitako eskutitza erakutsiz», azaltzen dute Orfeoiko kideek. Bestalde, sarrerak zenbakitua izango dira, eta hauek Leidorreko leihatilan ez ezik ohiko bideetatik eskuratu ahalgo dira. 12 euro balio du bakoitzak.

L Laburrak

Laskorain abesbatzaren kontzertua, hilaren 22an

MUSIKA • Laskorain abesbatzaren kontzertua izango da hilaren 22an, Sakramentinoetan 20:00etan. Laskorain txiki abesbatzak abesti japoniarra, *Texas, Panamam tombe* eta *Gabon gaua* interpretatuko ditu eta Laskorain abesbatzak *Lau teila-tu, Kanon humores, Mama, Niska Banja* eta *Mesias sarritan*. Abesbatzetako kideekin, Nerea Urbizu ariko da pianoan. Naiara Mintegia izango da zuzendaria.

Emakumeen Trindoor Txapelketarako deialdia

KIROLA • Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen Mahaia* saioan Emakumeen Herri Arteko Trindoor Txapelketa antolatu dute. Hiruko taldeak osatu behar dira parte hartzeko. elduaen@eitb.com-en edo 657 7196 68 zenbakian eman daitezke izena.

AHTRI buruzko informazioa emateko bulegoa jarri dute

AZPIEGITURAK • Eusko Jaurlaritzak arretarako bulegoa ireki du Tolosako udaletxean. «Euskal Y trenbide sare berriaren lanei buruzko informazioa» emango dute astelehenean ostiralera 09:00etatik 14:00etara. 943 65 44 66 zenbakian edo euskaly@ets-rfv.es-en ere informazioa eskuratu daitezke.

90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEKIN.

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artisku orotarako aseguru zura Citroen berria, errekareru eta interesik gabe eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

www.citroen.es

CITROËN preferre TOTAL

CITROËN C3 7.300€tik

CITROËN C4 HDi 11.600€tik

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€tik

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



Alkate eta hautetsiak Foru Aldundiaren atarian egin zuten prentsaurrekoa. HITZA

Ezker abertzaleko udalek «finantziazio justua» eskatu diote Foru Aldundiari

Politika » Zergen bidez jasotzen den diruaren egungo banaketa «lotsagarritzat» hartzen dutela azaldu dute.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko ezker abertzaleko zenbait alkatek, Gipuzkoako beste alkate eta hautetsiekin batera, elkarretaraztea egin zuten atzo Gipuzkoako Foru Aldundiaren atarian. Krisi egoera honen aurrean udalek «beharrezkoa» duten «finantziazio justua eta nahikoa» exijitu nahi izan diote Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Agerraldia, «Euskal ogasunek, enpresen gaineko eta aberastasun handien jabe diren pertsonen gaineko zerga prezioa murrizteko neurriak hartzen jarraitzen dute» salatuz hasi zuten. Eta honi, «ondarearen gaineko zerga kendu izana erantsi behar zaio eta ondorioz, 53 milioi gutxiago bilduko dira» azaldu zuten.

Gipuzkoan, zergen bidez jasotzen den dirua nola banatzen den ere adierazi nahi izan zuten: «100 eurotik, 63 euro Eusko Jaurlaritzak hartzen ditu, 15 Foru Aldundira dira doaz, 12 euro kuporako eta 9 euro geratzen dira udaletarako». Banaketa hau «lotsagarritzat» hartzen dute eta «udalentsat, finan-

tziazio duina, justua eta nahikoa eskatzen dugu eta horren alde borrokatzeko prest gaude» gaineratu zuten.

Bestalde garbi utzi nahi izan zuten «udal finantziazioaren murrizketa eta udalen egoera ekonomiko kezagarriaren erantzukizuna oso ondo markatu» behar dela, «dagokion gobernu eta indar politikoei egotzi eta hauei eskatu behar zaizkie erantzukizunak». Sistema «errotik aldatu» beharra dagoela uste dute.

Foru aurrekontuei osoko zuzenketa aurkeztu diete

Ezker abertzaleko udalek Gipuzkoako aurrekontu orokorraren proiektuari osoko zuzenketa aurkeztu diete, «zilegitasun demokratikoa falta» dutela salatuz. Bestalde, «aurrekontua ez dela parte-hartzailea, ezta soziala ere, menpekoa eta baztertzaila dela eta eredu jasanezina bultzatzen dutela» diote.

Laburrak

Musika emanaldiak, Alegia Villabona eta Anoetan

LOATZO » Musika eskolako ikasleek, abenduaren 21ean, astelehena, San Tomas egunez, Anoetan kale-jira egingo dute 18:00etatik aurrera. Alegian, ordu berean, kontzertua eskainiko dute Kultur Etxean. Villabonan ere, 17:30ean Loatzo Musika Eskolako aretoan audizioa izango da. Hurrengo egunean, hilak 22, 17:00etan musika eskolatik abiatuta Villabonako kaleetan kantuan arituko dira.

11:00etan Halterofiliako Eguberrietako Torneoa

VILLABONA » Gaur, 11:00etan hasita, Villabonako Olaederra Kiroldegian Eguberrietako Trofeo ospatuko da, Danena Halterofilia Taldeak antolatuta. Villabonako Udalaren babesia izan dute eta aurtengo denboraldiari amaiera polita eman nahi diote. Bertan Bizkaiko, Zarauzko eta Irungo taldeek hartuko dute parte, bertako Danena Halterofilia Taldearekin batera.



VIII. Ipuin lehiaketako saria jaso zuten idazleak, ohol-tza gainera igo ziren sariekin. E. MAIZ

Hernandorena Ipuin Lehiaketako sariak banatu dituzte

ERREDAKZIOA

Atzo banatu ziren Teodoro Hernandorena VIII. Ipuin Lehiaketako irabazleen sariak Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Maila guztietako lehen bi postuak saritu dituzte eta sariak banatzeko arduraria Maria Angeles Lazkano alkateak izan zuen. Lehenengo eta bigarrenentzat opariak izan ziren. Hi-

rugarren mailakoentzat, irabazlearentzat 90 euro eta bigarrenarentzat oparia. 14-16 urtekoentzat lehenak 150 euro eta bigarrenak oparia eta 17 urtetik gorakoekin kasuan, irabazlearentzat 450 euro eta bigarrenarentzat oparia.

Hauek izan dira mailaz maila sari jaso duten lan eta egileak: A maila, L.saria: *Hitz egiten zuen patineta*. Idazlea: Jorge Castellano idatzia. A mailako bigarren saria, Sara Iriarteren *Maitasunaren hitza*. B mailan, lehen saria, *Lagun minak* izenarekin, Asier Ascarayren lanak irabazi zuten. Eta B mailako bigarren saria, Jon Jauregiaren, *Oilar Kantaria* lanak eskuratu zuten. C mailako lehen saria, *Batuketak egiten ez zekien umea* izan zen eta Nagore Arinek idatzia da. Eta C mailako bigarren saria, Ignacio Balerdiren *Ametsak bete egiten dira* lanak lortu zuten.

D mailako artean berriz, lehen saria, *Hiltzailearen hilketa*, Unai Ugartemendiak idatzia izan zen eta D mailako bigarren saria, Unai Urkolak lortu zuen *Hegan egiten duen arranoa*. Inoren semea lanarekin. E mailako lehen saria, *Motel Montecarlo* lanarekin Ander Leonek eta bigarren saria Oskar Oterminen *Bidaieko bakarriketak* izan da.

Eskuratu

ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko DVDa

berria^{rekin}

gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

ABENDUAREN 24TIK AURRERA,
zure kioskoan

berria + 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKALAZ
berria





"Euskal kulturaren erabilerak
guztion ohitura izatea helburu
duen bide erria."

"La hoja de ruta que quiere convertir
en costumbre cotidiana el uso de la
cultura vasca."

"La feuille de route qui veut changer
en coutume quotidienne l'usage de la
culture basque."



zure, gure, denon ahotsak.

Ahotsak.com, Goiena.net, Blogek.com, Berrria.info, Dantzari.com, KDE4 eguneraketa, Sutatatu.com, Bulermetik, mintzara, Hitza.info, 28kanala.com, Euskalkultura.com, Otamotz.com, Euskarazko software katalogoa, Zuzen.com, Facebookera widgeta, Bertsoa.com, Gurasa.com, Flysch, Hiltzen Hiltza, Erlotelebilista.com, Estropa.net, API garapena, Euskalmapa.com, elgiBARREN.net, @idiazamedia.com, Hemanbertsoan.com, Zugaz.com, Urtaria.com, Pausurratze softwarea, eta gehiago...

Gaur emango diote amaiera Kirol Asteari, mahai-tenis partidekin

Ibarra » Herenegun iluntzean herriko hainbat kirolari eta kirol talde omendu zituzten udaletxeko pleno aretoan.

ERREDAKZIOA

Kirol Asteko ekitaldirik hunkigarriena ospatu zuten herenegun iluntzean, herriko 13 kirolarik eta bi kirol taldek omenaldia jaso baitzuten, Belabietako arduradunen eta Ibarra Udalaren ordezkarien eskutik.

Jon Altuna, Jon Ander Carrera, David Prados, Irati Ozaita, Maitane Garmendia, Olatz Aldalur, Saioa Sorondo, Laura Angulo, Jesus Mari Mujika, Xabier Fernandez, Karlos Peña eta Aitor Gartzia-rena omendu zituzten. Ambrosio Ibarzabal ere izan zuten gogoan, arraunlaria aurten hil baita. Bere alargunak jaso zuen aipamena. Ibarra emakumeen batelak eta Lauburuko jubenil taldeak ere jaso zuten aipamenik.

Asteburu honetan emango diote amaiera Kirol Asteari. Ekitaldi bakarra izango da gaur, 10:00etatik aurrera mahai-tenis partidak jokatu baitituzte Belabietan ki-



Herenegun iluntzean herriko hainbat kirolarik omenaldia jaso zuten. I. GARCIA



Atzo arratsaldean, gimnastika erritmikoko erakustaldia izan zen. N. LATABURU

» KIROL ASTEA

Gaur

■ 10:00. Alebin, haur mailan eta kadete mailan mahai-tenis partidak, kiroldegian.

Omenduak

Jon Altuna	Futbola
Jon A. Carrera	Areto-futbola
David Prados	Areto-futbola
Lau-Buru Jubenilak	Areto-futbola
Xabier Fernandez	Bela
Ambrosio Ibarzabal	Arrauna
Irati Ozaita	Arrauna
Maitane Garmendia	Arrauna
Olatz Aldalur	Arrauna
Emakumeen batela	Gimnastika
Saioa Sorondo	Gimnastika
Laura Angulo	Aizkora
Jexuxmari Mujika	Igeriketa
Carlos Peña	Txirridularitza
Aitor Gartzia-rena	egokitua

roldegian alebin, haur eta kadete mailatan.

Atzokoan ere Belabietan kirola izan zen protagonista. Bertan bildu baitziren gimnastika erritmikoko taldeko ordezkariak erakustaldia egiteko. Halaber, Ibarra eta Tolosako eskolen arteko pilota partidak jokatu zituzten bertan.

G Gutunak

Gabon zoriontsuak!

Eguberrietan, etxekoekin egiten diren ospakizunak direla eta, etxeko lanen kopurua areagotu egiten da. Gure gizartean batez ere emakumeek egiten dituzte lan horiek eta, ondorioz, festa egun horietan handitu egiten da emakumeen lan zama. Eta ez dakigu egoera horrek zergatik jarraitzen duen horrela. Inon ez dago idatzita lan horiek emakumeak egin behar dituenik, emakumeak etxetik kanpo egiten badu lana; eta lana etxean egiten badu, atsedean egunik eduki behar ez duenik ere.

Horregatik, gure elkarrekin gonbitea egiten die horrelakorik egiten ez duten gizonezkoek! Gabon jaiaietan etxeko lanetan parte hartzera. Izan ere, etxea bere eta bere semeena ere bada, eta ez emakumea bakarrik. Eta etxeko lanetan semeek ere parte har dezatela, beren adinarean neurrian.

Eta urtea bukatzean, urte berri-rako nahi eta desioen barruan, sor dadila, borondate oneko gizonengan, askozaz eta etxe eta famili giro solidario, parte-hartzaile eta zuzenagoa, hau da, etxeko guztiztat zorianzuegogoa.

Zorionak eta urte berri on!
Jesus M. Penilla Ibañez. Tolosako berdintasunerako eta genero indarkeriaren kontrako gizonzuekin elkarrekin izenean.

Kontsumo txikiko Gabonetako argi-pantaila berriak kaleetan

ERREDAKZIOA

Eguberrietako argi-pantailak Ibarra Udalaren faktura energetikoa %41ean murriztuko dute, lehen aldiz kontsumo txikiko Gabonetako argi-pantaila berriak ipiniko baitituzte. Udalak berak azaldu duenez, «argi-sistema honen instalazioak, energia aurrezteko eta jasagarritasuna lortzeko bultzatzen ari garen neurrien aldeko apustuari erantzuten dio».

Argi-pantaila berri hauek jarri ahal izateko 8.000 euroko inber-

tsioa egin behar izan du Udalak eta kopuru hori 4 urteko epean amortizatzeara espero dute, sistema honen energiaren kontsumoa nabarmen murriztuko baitu. Panelak mantentzeko behar ez duten mikro bonbillak osatuta daude eta hauek, osotasunean, gabon garaiko bezeroak diren motiboak dituzten irudiak sortzen dituzte.

Pantaila zintzilikariek orain arte erabiltzen zirenak ordezkatuak dituzte. Hauek 16 urteko antzintasuna zuten eta inbertsio-ahale-

gin garrantzitsua eskatzen zuten bai mantentzea egiterako orduan eta baita elektrizitatearen fakturak ordaintzerakoan ere. Ordezkatuz, Udalak «ingurumena eta garapen jasagarria defendatzen duten politikekin bat» egin nahi du.

Aurrez ere energia aurrezteko mota honetako neurriak hartu izan dituela gogoratu du Udalak. Aurreko legegaldia dagoeneko 3.000 euroko inbertsioa burutu zuten energia gastua erregulatzeke erloju kontsumo-mugatzailetan.

Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketako finala

ERREDAKZIOA

Bihar, Arrigorriagan (Bizkaia), Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketako finalak jokatuak dituzte emakumezkoen 255 eta gizonezkoen 300 kiloko pisuan. Bigarren maila honetan Ibarra taldea ariko da lehian. Berriozarrekin, Amaur B eta Sokarri B taldeekin podiumera igotzeko norgehiagoka izango dute ibartarrek. Une hauetan, bigarren dira sailkapen orokorrean, 9,5 punturekin.

Altuna II.ak finalerdietarako txartela lortzen saiatuko da bihar

ERREDAKZIOA

Altuna II. amezketarrak bihar jokatu du, Etxeberria III. bikote duela, Tejados Aoi z Torneoan. Finalerdietarako txartela izango dute jokoa, baina bikote zaila egokitu zaie, Ezkurrak eta Ionek osatutakoa, hain zuzen; azken bikote honek txapelketan jarraitu nahi badu, gutxienez 40-38ko aldeaz irabazi beharko du 16:30ean Euskal Jai Berri-Reyno de Navarra pilotalekuan izango den partida.

H Hilberriak

JOXE MARI ETXEBERRIA

Orain egun gutxi gure artekin joan zen

Gure helburuen lorpen bidean bide-lagun izan zaitugulako, mila esker.



Tolosako ezker abertzalea.

TOLOS
2009ko
abendua 19a

E Eskertza

ESKERTZA

EÑAUT ALDANONDO BEGIRISTAIN

Orain egun gutxi mendian hil zen

Bizi guztian gordeko degu guri eman diguzuna jakin ezazu bihotz-bihotzez maitatuko zaitugula.

Aita, ama eta anaia Egoitzek eskertzen dizuete samin agurra bidali zenuen gutzioi eta baita bere hiletara etorri zineten gutzioi ere.



LAZKAO
2009ko
abendua 19a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

G Gutunak

Zertan oinarritzen dira horrelako proiektu bat aurrera eramateko?

Jada TAOren gaiarekin aurrera egin du gure Udalak (kaltetutako ingurua margotzen hasia da), eta hainbesteko garrantzia duen gaia izateko oso informazio gutxi daukagu eskuartean. Hau ikusita, herritar batzuk udal zinegotziekin bilera bat eskatu genuen gaiaz hitz egin eta informazioa jasotzeko.

Azaroaren 19an elkartu ginen, eta esan beharra dago, gure iritziz, bilera antzua izan zela: Beraien esanetan ikerketa baten ondorioz iritsi dira honaino, eta ikerketa horri buruz galdetuta kontraesan ugari sortzen dira beraien artean. Gure ustetan, hori ez da itxura, erabaki bat hartzerako orduan

alde guztiak aztertu eta barneratu behar dira (defendatzen dutenen artean behintzat). Ezin da horrelako erabaki bat hartu ondo aterako den esperantzarekin, %100ean seguru egon behar da erabakiarekin eta ez proba egiteagatik edo zerbait egiteagatik martxan jarri.

Bilerara zalantzak argitzera joan ginen eta zalantza gehiagorekin atera; triste da, baina halaxe da. Hau dela eta, idatzi honen bidez gure kezka idatziz helarazten dizkizuegu, ea gure zalantzak argitzen dituzuen eta, bide batez, herritarren informazio beharra asetzen duzun:

- TAO sistema Ibarren erroldatuta ez dauden kotxeek sortzen dituzten arazoak konpontzeko omen da. Zenbat kotxe etortzen dira kanpotik Ibarra aparkatze-

ra? Ze ordutatik ze ordutara? 19:30etatik aurrera ere kanpotarrik al dira Euskal Herria kalea kotez betetzen dutenak?

- Zona urdin eta zona gorrian zenbat kotxe daude erroldatuta? Eta zenbat aparkaleku daude? Deneztako tokirik ba al dago?

- Zergatik aipatzen duzue 6 hilabetetako proba izango dela, 2 urteko kontratua sinatu bada? Zenbat kostako zaigu ibarroi 6 hilabete ondoren kontratua etetea?

- 6000 euro hilean diru gutxi iruditzen al zaizue?

- Beste herrietan TAO ordaindu nahi ez duenak doako aparkaleku bat izaten du aukeran erdigunetik kanpo. Ibarren aukera hori izango al da? Non? Zenbat kostako da?

- Merkatarien onerako omen da TAO sistema, mobilidadea bultzat-

tuko duelako. Hau horrela izanda, nola ulertzen duzue merkatarien ehuneko handi bat TAO sistema honen aurka sinadurak biltzen ari-tzea?

- TAO sistema honekin aparkalekuen arazoa beste auzo batzuetara igaroko da. Zer egingo duzue «arazo berri» hau konpontzeko? TAO sistema herri guztira zabalduko duzue? Garaje pribatua dutenek *residente txartela* hori eskuratzetik izango al dute?

- Eguneko Zentroaren obrak hasten direnean, 80 kotxe inguruzentzako aparkalekua desagertuko da. Non sartu behar dituzue kotxe horiek guztiak?

Udal zinegotziek higikortasuna dute ahoan gora eta behera. Gure ustez erabat oker daude edo ezukisiarena egiten ari dira. Ibarra

arazoa aparkaleku falta izugarria da: 2.500 kotxe daude erroldatuta eta 2.100 aparkaleku dauzkagu (obregatik momentuz erabili ezinik dauden guztiak kontatuta). Arauen beregite prozesua pil-pillean daukagun honetan aparkalekuen arazoaren soluzioa bertan islatu beharko genukeela iruditzen zaigu, orain dugu aukera daukagun lurzorua egoki kudeatu eta arazoarekin behin betirako amaitzeko.

Horregatik, ez dugu idatzi hau azken galdera bat egingabe amaitu nahi. **Zer egin behar duzue hau konpontzeko?**

Erantzunak behar ditugu eta TAO sistema honek ez gaitu konbentzitzen.

TAOrekin kezkatuta dagoen herritar taldea. Ibarra.



Babes Zibileko Plana jaso du Udalak

IRURA ■ Gipuzkoako Diputazioak Herriko Babes Zibileko Plana eman dio Irurako Udalari. Honen helburu nagusia larrialdien aurreko prebentzioa eta, horrelakorik gertatuz gero, egin beharreko urratsak prest edukitzea da. Marimi Ugalde alkateak jaso du Plana. HITZA

Loatzo Musika Eskola eskualdea alaitzen

Musika » Anoetan, Zizurkilen, Ibarren, Alegian eta Villabonan emanaldiak eskainiko dituzte Gabonetan zehar.

ERREDAKZIOA

Eguberrietako oporrak datozela eta, urteroko ohiturari jarraituz, Loatzo Musika Eskolak hainbat gabon kantu eskainiko ditu Tolosaldeko herrietan.

Etzi Anoetako plazatik irtengo

dira 18:00etan, kalez-kale kantuan aritzeko asmoz. Egun eta ordu berean Alegiako Kultur Etxean emanaldia eskainiko dute Loatzoko ikasleek. Villabonan 15:30ean elkartuko dira, Musika Eskolako aretoan.

Ibarren, Zizurkilen eta berriro ere Villabonan, hilaren 22an elkartuko dira Musika Eskolakoak. Lehen bi herrietan 18:00etan, eta hirugarrenean 17:30ean. Villabonan berriro ere Eskola bertan geldituko dira, hori bai, ondoren kalera irtengo dira.

Bedaioko azoka bihar egingo dute bertako produktu eta aberekin

ERREDAKZIOA

Urte amaierako azoka egingo dute Bedaion bihar. Herriko produktuak egingo dira ikusgai eta salgai: bertan ekoiztutako babarruna, artzainen gaztak, fruta, barazkiak, baserriko ogi erre berria, irasagarria, odolki eta txerrikiak, gaztaina erreka... Animalia eta hegaztiak era izango dira, baita garai bateko lanabesak ere.



SARIDUNAK

① Erosketa balea

Ixabel oinetakoak dendan gastatzeko
100 € ko balea




Iurre auzoa 16
943 670 277

Milagros Iturrioz (Irura)

② Haur literatur liburu sorta


Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



Monse Huegun (Villabona)

③ Diskoa

Ken Zazpi taldearen "Ken Zazpi urte zuzenean" 2 CD-DVD



M^a Rosario Arrue (Anoeta)
Arantxa Karrera (Amezketza)

④ HITZA materiala

HITZAren material sorta ederra



Urko Arin (Villabona)

Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak izeba!

Izarrak gauean argia egiten du, ni izarrari begira ametsetan nabil.
(Maren)



Zorionak!

Alaia. Urte askoan! Gaur etxeko pinpilipauxak 4 urte. Marrubizko muxuak lurako osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



Zorionak!

Arane (Zarautz). Etxekoan partetik muxu handi bat.

A Agenda

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Zorionak guapa!

Euskal preso politikoekiko elkartasuna ez da delitua. Maite zaituztegu!



DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE

euskal
presoa
euskal
herria

U2 DENOK BILBORA!

MANIFESTAZIO NAZIONALA Bilbon, arratsaldeko 17:00etan Aita Donostiatik abiatuta